

# INFLEXIO KANPORATZE GERTAKARIAK EUSKARAZ

Javier Etxagibel

(Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea)

## Abstract

*This article presents several processes of externalization of inflection of the kind described by Haspelmath (1993) that are found in the diachrony of Basque.*

*In the first part, we include the main points of the paper “The diachronic externalization of inflection” (Linguistics 31, 1993). In that paper, Haspelmath discusses several instances from various languages in which an inflectional affix which is between a stem and a non-inflectional affix is externalized and ends up outside the non-inflectional affix. Frequently, there are intermediate patterns (hybrid forms) where the inflectional affix occurs twice, both before and after the non-inflectional affix. The mechanism that accounts for such hybrid forms is pleonastic affixation. To explain that mechanism Haspelmath proposes a principle of speaker-conservatism in the diachronic process.*

*In the second part we focus in the Basque language, and describe some processes whose common trait is the presence of the hybrid forms. Each diachronic process is presented in a table where we include, for each pattern, all the dialect variations used by individual writers of the different literary dialects from the 16th to the 20th century. Following the table is a comment on the different dialectal forms found in that table.*

*The main consequences to be drawn from this analysis are the following: (i) hybrid forms have been considered only as a second hand resource by Basque writers; (ii) diachronically, between the different dialects, and, also inside a given dialect, we do not find any converging trends in the use of hybrid forms. The same thing occurs also in contemporaneous authors of the same dialect. Therefore, the use of hybrid forms seems to be only an individual option.*

## 0. Sarrera\*

J. Greenberg-ek (1963: 93) inflexio kanporatze (aurrerantzean: IK) gertakarien printzipioa ezarri zuen 28. Unibertsalean aldarrikatu zuenean deribazio hizkien

---

\* Lan hau J. Lakarraren zuzendaritzapean 2006-2007ko doktorego ikastarorako egindako lan baten birmoldaketa da. Nire esker ona Josebari bere aholku, zuzenketa eta iradokizunengatik. Noski, bera ez da arduraduna lanean iradokitzen ditudan hipotesiez, ematen ditudan datuez, egiten ditudan baieztapenez eta egin ahal izan ditudan hutsagiteez.

lehentasuna inflexio hizkien aurretik erroarekiko kokapenaren ordenan. Ondoren, J. Bybee-k (1985: 4, 33) printzipio horri eduki teoriko bat eman zion proposatuz hizkien kokapena gauzatzen dela erroarekiko duten semantika adierazgarritasun-mailaren arabera. M. Haspelmathentzat (1993: 279-309) IK-a morfologia berrantolaketa bilakabide diakroniko baten emaitza da. Haspelmathen ikerlanean euskarazko adibide zenbait agertzeak bultzatu gaitu aztertzeraz euskal literaturan zehar horrelako bilakabide diakronikoak agertzen diren.

## I. Haspelmathen ikerlanaren aurkezpena

Haspelmathek dioenez erro baten eta gramatikalizazioz berari lotuta dagoen elementu enklitiko aske baten artean txertatutako hizki baten kanporatzea gertatzen da morfologia hizki berrantolaketa diakroniko baten bitartez. Izan ere, munduko hizkuntza batzuetan badira horrelako gramatikalizazio prozesu zenbaitek bultzaturiko IK-ak: izenordain erakusle eta galdetzaileen sailetan, adizkietan eta justaposizioetan, hain zuzen ere. Zenbait kasutan forma zaharretatik berrietarainoko bilakabideetan bitarteko forma pleonastiko hibridoak agertzen dira.<sup>1</sup> Haspelmathentzat egitura hibrido horien existentziak, batetik, eta berrantolaketa bilakabideetan ematen diren alomorfia trataerak,<sup>2</sup> bestetik, IK gertakariaren izaera morfologikoa erakusten dute. Beraz, morfologia mekanismo baten aurrean gaude.

### *IK-aren zergatikoa*

Haspelmath ados dago Bybeeren adierazgarritasun-mailaren lehentasunaren printzipioarekin. Hala ere, printzipio hori ez da guztiz hertsiki hartu behar, zeren eta, askotan, inflexioa barneratua duten formak ez dira soilik agertzen hizkuntza baten antzinako aldietan, baizik eta hizkuntza horren gaur egungo egoeran ere.

### *Murritzapenak inflexio kanporatze gertakarietan*

Haspelmathek hiru murritzapen ezartzen ditu IK bilakabideetan: a) Norabide bakarrekoak izatea; barneko inflexio bat kanpora daiteke, baina kanpoan dagoen bat ezin da inoiz barneratu. b) Kanporatzea soilik inflexio morfologiari dagokio, ez era-

<sup>1</sup> Esate baterako, georgieraz *rame* —*ra* (galdetzailea) + *-me* (zehaztugabetasuneko marka)— izenordain zehaztugabearen deklinabidean:

antzinako egitura	bitarteko egitura	egitura berria
nom. <i>ra-me</i>		
dat. <i>ra-s-me</i>	<i>ra-s-me-s</i>	<i>ra-me-s</i>
ades. <i>ra-d-me</i>	<i>ra-d-me-d</i>	<i>ra-me-d</i>
gen. <i>r-is-me</i>		<i>ra-me-s</i>

<sup>2</sup> Adibidez, euskaraz *honixe* > *honexeri* bilakaeran datiboaren markaren kanporatzea gertakari sintaktiko bat izatekotan, forma berria *\*\*honxei* izango litzateke *-ri* alomorfoa duen *honexeri* izan ordez.

torpen morfologiari. c) Bitarteko pleonasmok soilik inflexioei dagozkie, inoiz ez elementu enklitikoiei.

### *Kanporatzearen mekanismoa: pleonasmu afixazioa*

Nahiz eta kanporatze batzuek analogia proportzionalaren bitartez azal daitezkeen, Haspelmathi ez zaio azalpenik egokiena iruditzen eta pleonasmu afixazioaren alde agertzen da. Horren arabera, kanporatze mekanismoak bi maila izango luke:

- a) Pleonasmu afixazioa: inflexioa erro eta enklitikoaren artean denean hitzaren gardentasun morfo-semanticoa ez da aski, eta hori saihesteko bidea pleonasmu afixazioa da. Bitarteko egitura pleonastikoak sortzeko zergatikoa hizkuntzek ez aldatzeko duten joeran datza. Izan ere, forma kanporatua bezalako edozein berrikuntza ezin da azkarregi gertatu; bestela, hiztun berritzaileei eta gainerakoei elkar ulertzea ezinezko izango litzaieke.
- b) IK-aren gauzatzea: bi aldiz markatutako egitura hibrido horiek ekonomia-aren printzipioaren kontra dira, batetik, eta oraindik nolabait inflexioa barneratua dute, bestetik, hots, ez dira egonkorak eta desagertu egin behar dira. Hala ere, ez dago argi desagerpen horretarako zein diren bideak; batzuetan, analogia da bidea, baina, beste kasu batzuetan, oraingo, zail da azaltzen.

## II. Pleonasmu afixazioa euskarazko IK gertakarietan<sup>3</sup>

### II.1. Aurrekariak

H. Gavel (1929: 188) izan zen lehendabizikoz forma pleonastikoen existentzia aipatu zuena. Izan ere, *X-bait* saileko modu aditzondoan gainean jarduterakoan adierazi zuen zubereraz erabiltzen zela “*nuntipaitik avec repetition pleonastique*”. Guk dakigularik, P. Lafitte (1944: 98) izan zen IK-aren hiru mailei buruz lehenbiziko berri zehatza eman zuena. Izan ere, *nahi* postposizioaren bidez eraikitako izenordain zehaztugabeak aztertzerakoan adierazi zuen euskal autoreengan hiru deklinabide

<sup>3</sup> Egia esan, jatorrizko lanean Haspelmathen bilakabidearen hiru mailak dituzten kasuak ez ezik, bi maila dutenak ere bildu genituen. Jatorrizko lanaren hedadura handiegia izanik, oraingo honetan, soilik forma pleonastikoa dutenak aztertuko ditugu; gainerakoak ondoan aipatzen dira aurkezpen gisa:

- Izenordain zehaztugabeetan: *norkbait / norbaitek; nortzukbait / norbaitzuk; zeribait / zerbaiteri; zertarakobait / zerbaiterako; norekin nahi / nornahirekin;*
- Aditzondo konposatuetan: *nolakonahi / nolanahiko;*
- Erakusle indartuetan: *honixe / honexeri; horrixex / horrexeri; harixe / harrexeri; honetaraxe / honexetara; horretaraxe / horrexetara; harretaraxe / harrexetara; horregatixe / horrexegatik;*
- Erakusle indartuetatik eratorritako aditzondoetan: *hemendixe / hementxetik; hortixe / hortxetik; hemengoxe / bementxeko; hangoxe / hantxeko; honelakoxe / honelaxeko; horrelakoxe / horrelaxeko; halakoxe / halaxeko;*
- Beste aditzondo indartuetan: *orduante / orduxe.*

era aurki zitezkeela: a) izenordaina deklinatua zuena: *nori-nahi*; b) *nahi* deklinatua zuena *hi* izenordainaren deklinabidearen arabera, genitiboan izan ezik, alegia, *nor-nahi-ri*, baina, *nornahi-ren* (\*\**nornahi-re*); c) izenordaina eta postposizioa deklinatuak zituena: *nori-nahiri*, *noren-nahiren*. Lafittek zioenez *nahi* deklinatua zuten formak tankera egokien eta dotorentzat hartzen ziren. Arotçarenak (1951: 54) ere *Grammaire Basque (dialectes Navarro-Labourdins)* delakoan *nor-nahik*, *nork-nahik* eta *nork nahi* formak erabiltzen zirela adierazi zuen, azpimarratuz *nork-nahik* forma oso bakana zela. Azkenik, R. Etxeparek (2001: 111, 25. oh.) Nz-*bait* izenordain zehaztugabeen gramatikalizazio prozesuen gainean jarduterakoan aipatzen du euskaraz ere Haspelmathen forma pleonastiko zenbait agertzen direla: *nondikbaitik*, *norabaita*, eta *nonbaiten*, hain zuzen ere.

## II.2. Ikerlanaren helburua

Aurrekari horien arabera, badirudi pleonasmoo afixazioa hala hiztunek nola idazleek erabilia izan dela *X-bait* eta *X-nahi* sailetan, hain zuzen ere. Berriz, IK gertakariaren hedapena —denboran eta espazioan— aztertu duen lanen bat ere ezagutzen ez dugunez, gure helburua izan da aztertzea euskal lekukotasunen diakronian agertzen diren forma pleonastikoa duten IK gertakariak, ez bakarrik aipatutako sailetan, baita *X-bera* eta erakusle indartuenetan ere.<sup>4</sup>

## III. Metodologia

Azterketa aurkeztu baino lehen, erabilitako metodologia irizpideak jaso nahi izan ditugu:

- A) Corpora biltzerakoan *Klasikoen gordailuko Corpus arakatzaillea* eta *OEH* erabili ditugu. Horiez gain, *TAV*-ean, *ConTAV*-ean, eta J. Lakarrak *RS*-i buruz prestatutako edizio kritikoan agertzen diren hiztegitxoak ere ikuskatu ditugu. Ezer ez aipatzekotan, lekukotasunak *Klasikoen gordailuko* corpusetik atereak dira.
- B) Forma bakoitzeko aldaera guztiak *OEH*-n agertzen direnak dira.
- D) Bilakabide bakoitzaren formak mendez mende zein euskalkitan eta zein autorek erabili dituzten aztertu dugu. Azterketa bakoitzaren datu guztiak taula batean bildu ditugu. Euskalki eta azpieuskalkiak honako laburdurez

<sup>4</sup> Horrek ez du esan nahi IK-a beste sailetan gertatzen ez denik. Esate baterako, I. Caminok (2003: 72) aipatzen du hego-nafarreraren ingurumarian pluraleko ahaleko adizkietako *-ke*-ren pleonasmooen erabilera, hala nola berak Latasan bildutako *dezakezuke*, eta XIX. mendeko Ezkabarteko Markirriaingo kristau ikasbidean *dezakeguke*. Horrez gain, Corpus arakatzaillean begiratuz gero, aurkitzen da *dezakezu*, *dezakegu*, etab. forma kanporatuez gain —beste idazle batzuen artean— Lizarragak *dezakezuke*, Duvoisinek eta D. Legazek *dezakeguke* / *dezaguke*, eta Iztuetak *dezaketekete* baliatu zituztela, hau da, euskal literaturan *-ke* ahaleko paradigmaren Haspelmathen bilakabidearen hiru formak aurkitzen dira, hori bai, kasu honetan hibridoek Haspelmathen 3. murriztapena bortxatuko lukete (ik. § I), baina, emaitza berarekin, hots, inflexioaren kanporatzearekin. Beraz, ematen du adizkietan ere badela gairik ikertzeko.

aipatzen dira: *a*: Arabako euskara; *b*: bizkaiera; *bn*: behe nafarrera; *e*: erronkaria; *g*: gipuzkera; *gn*: goi nafarrera; *l*: lapurtera; *z*: zuberera.

- E) Hibridoen egitasuna. Haspelmathen analisisan egitura hibridoak funtsezkoak izanik, komenigarritzat jo dugu corpusean bildutako hibridoen benetakotasuna egiaztatzea. Horretarako, agertutako forma hibrido bakoitzaren azterketa egin dugu kontuan hartuz zer nolako testuingurutan agertzen den. Forma hibridoren baten benetakotasunaz zalantzak direnean, edo haren erabilera berezitasunen bat azaldu behar denean, dagokion azterketaren atalean adierazten dira.

#### IV. Azterketa

Forma hibridoa duten bilakabide diakronikoak bi ataletan banatu ditugu:

- Lehenengoan ondo ezaugarritako IK-ak biltzen dira, izenordain zehaztugabeetan eta aditzondo konposatuetan gertatzen direnak, hain zuzen ere:
- Izenordain zehaztugabeetan

*noribait / noribaiti / norbaiti; norknahi / norknahik / nornahik;*  
*norinahi / norinahiri / nornahiri; noren nahi / noren nahiren / nornahiren*  
*nori berari / norberari; nork bera / nork berak / nor berak*

- Aditzondo konposatuetan

*nondikbait / nondikbaitetik / nonbaitetik; norabait / norabaitera / nonbaitera*  
*nonbait / nonbaiten; nondiknahi / nondiknahitik / nonahitik;*  
*noranahi / noranahira / nonahira*

- Bigarren atalean balizko IK-ak aztertu ditugu, erakusle indartuen genitiboek, hain zuzen ere:

*onentxen / onentxe; horrentxen / horrentxe; harentxe / harentxen / haretxen*

#### IV.1. Izenordain zehaztugabeetan

##### IV.1.1. *noribait / noribaiti / norbaiti*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nor-i-bait</i> noribait (1) nori bait (2)				<i>b</i> : J. A. Mogel (2) Añibarro (1) Zabala (1) J. J. Mogel (2) P. Astarloa (1)	<i>g</i> : Lizardi (1) Orixe (1)
<i>nor-i-bait-i</i> noribaiti (1) nori baiti (2)			<i>gn</i> : Lizarraga (1) (2)	<i>b</i> : Zabala (1)	

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nor-bait-i</i>	<i>l:</i>	<i>l:</i>	<i>g:</i>	<i>b:</i>	<i>b:</i>
norbaiti (1)	Leizarraga (7)	Pouvreau (1)	Ubillos (1)	J. A. Mogel (1)	D. Agirre (1) (3)
norbaiti (2)		Aranbillaga (1)	<i>gn:</i>	Añibarro (3) (6)	Azkue (1)
norbaiteri (3)			Mendiburu (1)	Zabala (3) (5)	Kirikiño (1)
norbatteri (4)			Lizarraga (1)	J. J. Mogel (1)	Lauaxeta (2)
norbaisteri (5)			<i>l:</i>	Astarloa (1)	Otxolua (4)
norbeiteri (6)			Haraneder (1) (7)	Arrese Beitia (1) (3)	Eguzkitza (1)
norbeiti (7)				<i>g:</i>	Erkiaga (3)
nurbaiti (8)				Agirre (1)	Kamiñazpi (3)
				<i>bn:</i>	Barbier (1) (7)
				Iztueta (1)	Manezaundi (1)
				Uriarte (1)	<i>g:</i>
				Arana (1)	D. Agirre (1)
				Soroa (1)	Barriola (1)
				R. Artola (1)	Altzaga (1)
				Xenpelar (1)	Antia (1)
				Bilintx (1)	Zabala (1)
				Azkarate (3)	Labaien (1)
				Manterola (1)	Lizardi (1)
				Urruzuno (1)	Loramendi (1)
				Otaño (1)	Anabitarte (3)
				Txirrita (1)	<i>gn:</i>
				<i>l:</i>	Larreko (1)
				Duhalde (1)	Gurbindo (1) (3)
				Goietxe (1)	Izeta (3)
				Duvoisin (1)	<i>l:</i>
				Elizanburu (1)	Hiriart-Urruti (7)
				Joanategi (7)	Zerbitzari (7)
				<i>z:</i>	Exepare (1) (7)
				Xaho (8)	Decrept (7)
				Intxauspe (8)	Leon (1)
					Lafitte (1)
					Larzabal (1) (7)
					<i>z:</i>
					Constantin (1)
					Mirande (1)

- Bizkaieraz: Zabalak *Sermoiak*-en hiru formak erabili zituen: *noribait* / *noribaiti*/*norbaisteri*, *norbaiteri*. Egia esatera, forma hibridoa zalantzazkoa da.<sup>5</sup> xx. mendeko lekukotasun guztiak forma berriarenak dira.
- Gipuzkeraz: oraindik, xx. mendean egitura zaharra eta berria agertzen dira.

<sup>5</sup> Izan ere, *noribaiti* erabili zuen aldi bakarrean ematen du duplografia huts batengatik izan zela:

Prestadu deutzazu *noribaiti* diru edo gauzaren bat zor deutsu zerbait, saldu deutzazu epetan baitura zerbait (*Sermoiak II-4*: Jaungoikoaren Legeko [Bigarren] Aginduaren... Ikasbidea)

Hibridoa agertzen den testuingurua ikuskatuz, gerta liteke hurrengo hitzaren lehenengo silabak eragindako duplografia huts bat izatea: *noribait* + *diru* > *noribaiti* + *diru*. Horrez gain, *Sermoi* berebean *noribait* baliatu zuen. Ondorioz, oso zalantzazkoa da hibrido horren izaera.

- Goi nafarreraz: Lizarragak sistematikoki erabili zuen egitura hibridoa —20 al-diz bost liburutan, hain zuzen ere— xx. mendean forma kanporatua agertzen da soilik.
- Lapurteraz: xvi. mendetik aurrerantzean forma berria da lekukotzen den bakarra.

IV.1.2. *norknahi / norknahik / nornahik*<sup>6</sup>

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nor-k-nahi</i> norknahi (1) nork nahi (2) nork nahi den (3) norknai (4) nork nai (5) nork-nai (6) nurk nahi (7)	<i>l</i> : Leizarraga (3)	<i>l</i> : Gazteluzar (1) <i>z</i> : Tartas* (3) Belapeire (2)	<i>g</i> : Larramendi(5) Kardaberaz (5) Ubillos (5) <i>gn</i> : Mendiburu (4) (5) (6) Mikelestorena (6) <i>l</i> : Larregi (2)	<i>b</i> : J. A. Mogel (5) Arrese Beitia (5) <i>g</i> : Agirre (5) Iztueta (5) <i>z</i> : Salaberri* (7)	<i>l</i> : Lafitte (2)
<i>nor-k-nahi-k</i> norknaiek (1) nurk-nahik (2)			<i>gn</i> : Lizarraga (1)	<i>z</i> : Xaho (2)	
<i>nor-nahi-k</i> nornahik (1) nor nahik (2) nor-nahik (3) normaik (4) nor naik (5) nor-naik (6) normaiek (7) nor naik (8) nur nahik (9)		<i>l</i> : Pouvreau (2)	<i>a</i> : Gamiz (5) <i>gn</i> : Mendiburu (4) Lizarraga (7)	<i>b</i> : Añibarro (5) <i>g</i> : Arrue (4) R. Artola (4) Urruzuno (4) <i>l</i> : Duhalde (2) Duvoisin (1) (3) Hiribarren (2) Zaldubi (3) Elizanburu (2) Mendiage (1) (2) Lapeire (6) Arbelbide (2) (3) <i>z</i> : Xaho (9) Arxu (9)	<i>b</i> : Azkue (4) <i>bn</i> : Barbier (1) Oxobi (2) Manezaundi (1) <i>g</i> : Lizardi (4) A. Zabala (4) Orixe (4) (6) Anabitarte (4) Barrenso (4) <i>gn</i> : Larreko (8) <i>l</i> : Hiriart Urruti (1) (2) Zerbitzari (3) Etxepare (1) Decrept (2) Leon (3) Larzabal (1) (3) <i>z</i> : Constantin (9) Mirande (3)

- Bizkaieraz eta gipuzkeraz: xix. mendean agertu ziren forma berriaren lehenbiko lekukotasunak, xx. mendeko guztiak forma berriarenak dira.

<sup>6</sup> (\*) marka dutenak *OEH*-tik atereak dira.

- Goi nafarreraz: Lizarragak egitura hibridoia (aldi batez) eta egitura berria (23 aldiz) erabili zituen. Zalantzakoa da egitura hibrido horren izaera.<sup>7</sup>
- Lapurteraz: xvii. mendean forma zaharra eta berria erabili ziren. xix. mendetik aurrerantzean forma berriari dagozkion lekukotasun guztiak.
- Zubereraz: xix. mendean hiru formak erabili ziren, Xahok forma hibridoia (aldi batez) erabili zuen. xx. mendean agertzen den forma bakarra berria da.

#### IV.1.3. *norinahi / norinahiri / nornahiri*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nor-i-nahi</i> nori nahi (1) nori nahi den (2) norinai (3) nori nai (4) nori-nai (5) nori nai duen (6) nuri nahi (7)		l: Axular (2) Pouvreau (2)	g: Larramendi (4) gn: Mendiburu (3) (4) (5) Lizarraga (4) (6) z: Maister (7) Egiategi (1)	b: Mogel (4) g: Agirre (3) (4) Lardizabal (4) (5) Arrue (5)	b: Basabe (5) l: Hiriart Urruti (1) z: Constantin (7)
<i>nor-i-nahi-ri</i> norinahiri (1) nori nahiri (2) norinaii (3)			gn: Lizarraga (3)	l: Duvoisin (1) Laphitz (2)	
<i>nor-nahi-ri</i> nornahiri (1) nor nahiri (2) nor-nahiri (3) nornairi (4) nor-nairi (5)		l: Pouvreau (2)		b: Zabala (5) g: R. Artola (4) l: Hiribarren (2) Zaldubi (2)	bn: Barbier (1) (2) Manezaundi (1) (2) l: Zerbitzari (3) Leon (3) Lafitte (3) Larzabal (1) (3)

- Bizkaieraz eta gipuzkeraz: xix. mendean forma zaharra eta berria agertzen dira. Bizkaieraz, xx. mendean forma zaharra agertzen da.
- Goi nafarreraz: Lizarragak forma zaharra (8 aldiz), eta hibridoia (3 aldiz) erabili zituen.
- Lapurteraz: xvii. mendean forma zaharra eta berria agertzen dira. Ostera, xix. mendean forma berriaren lekukotasunez gain, Duvoisinek (aldi batez), eta Lapitzek (bi aldiz) forma hibridoia erabili zuten. xx. mendean, berriro, forma zaharra eta berria agertzen dira.

<sup>7</sup> Baliteke kopia huts bat izatea. Izan ere, hain handia izanik alde forma kanporatua eta hibridoaren arteko erabileraren maiztasunean, batetik, eta, kontuan hartuz forma hibridoia erabili zuen sermoi berberean forma kanporatua ere agertzen dela, bestetik, baliteke *norknaiek* idazlearen huts bat izatea:

*Norknaiek* daki San Pedoren barka signifikatzen duela Kristoren Eliza edo Kristio gendea (Sermo in Dominica 4<sup>o</sup> Pentecostem)



IV.1.4. *noren nahi / noren nahiren / nornahiren*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nor-en-nahi</i> noren nahi (1) norenai (2) nuren nahi (3)		ġ: Harizmendi (1)	z: Egiategi (1) Maister (3)	g: Agirre (2)	
<i>nor-en nahi-ren</i> noren nahiren				l: Laphitz	
<i>nor-nahi-ren</i> normahiren (1) nor nahiren (2) nor-nahiren (3) normairen (4)				g: Arrue (5) l: Hiribarren (2) Arbelbide (2)	b: Azkue (4) bn: Manezaundi (1) g: Lizardi (4) Barrenoso (4) l: Hiriart Urruty (1) (2) Zerbitzari (1) (2) Larzabal (1) (3)

— Gipuzkeraz: XIX. mendean forma zaharra eta berria agertzen dira. XX. mendeko lekukotasun guztiak forma berriarenak dira.

— Lapurteraz: XVII. mendean forma zaharra agertzen da. Berriz, XIX. mendean Laphitzek (aldi batez) forma hibridoa erabili zuen bitartean gainerakoek berria baliatu zuten. Azkenik, XX. mendean forma berria agertzen da bakarrik.

IV.1.5. *noriberari / norberari*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nor-i bera-ri</i> nori berari nori-berari				l: Duvoisin	
<i>nor- bera-ri</i> norberari (1) nor berari (2) nor-berari (3)				b: J. A. Mogel (2) J. J. Mogel (2) Anonimoa (1) Uriarte (1) g: Uriarte (1) Iturzaeta (1) l: Arbelbide (3)	b: Batxi (1) Kirikiño (1) g: D. Agirre (1) Lizardi (1) Labaien (1) l: Leon (3)

Euskal idazlanetan ez da forma zaharraren lekukotasunik aurkitzen; euskalkiz euskalki ondoko gertaerak dira:

— Bizkaieraz eta gipuzkeraz: XIX. mendetik aurrerantzean idazle guztiak forma berria baliatu zuten.

— Lapurteraz: XIX. mendean forma berria, eta Duvoisinek (4 aldiz) erabilitako forma hibridoa agertzen dira. XX. mendeko lekukotasun bakarra forma berriarena da.

IV.1.6. *nork bera / nork berak / nor berak*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>nork bera</i> nork bera				<i>g</i> : Anonimoa 1865koa <i>gn</i> : Legaz	
<i>nork bera-k</i> nork berak (1) nork-berak (2) nok berak (3) norkberak (4) nurk berak (5)	<i>b</i> : RS (3)		<i>gn</i> : Mendiburu (1) <i>l</i> : Baraziart (1) <i>z</i> : Egiategi (1)	<i>b</i> : J. A. Mogel (3) <i>g</i> : J. A. Mogel (1) Uriarte (1) Manterola (1) Aranburu (1) Artola (1) <i>l</i> : Duhalde (1) Duvoisin (1) (4) Zaldubi (1) (2) Joanategi (2) Arbelbide (1)	<i>l</i> : Lhande (1) Leon (1) <i>z</i> : Althabe (5)
<i>nor bera-k</i> norberak (1) nor berak (2) nor-berak (3) norperak (4) noberak (5)			<i>b</i> : Olaetxea (1) (5) <i>z</i> : Egiategi (1)	<i>b</i> : Añibarro (1) (5) Zabala (1) J. J. Mogel (2) (5) Astarloa (1) Arrese Beitia (1) (2) <i>g</i> : Urruzuno (4) Iturzaeta (1) <i>gn</i> : Bordel (2) <i>l</i> : Elizanburu (2)	<i>b</i> : D. Agirre (1) Azkue (1) (5) Batxi (1) Basabe (1) Kirikiño (1) Lauaxeta (1) Zamarripa (1) Otxolua (1) Eguzkitza (1) Erkiaga (1) Kamiñazpi (1) <i>g</i> : D. Agirre (1) Imaz (1) Labaen (1) Lizardi (1) (3) Anabitarte (1) Barrenso (1) Eizagirre (1) <i>l</i> : Leon (3) Larzabal (1)

- Bizkaieraz: XVI. mendean forma hibridoak agertzen da, XVIII. mendeko lekukotasun bakarra forma berriari dagokio; XIX. mendean forma hibridoak eta berria erabili ziren. Azkenik, XX. mendeko idazle guztiak forma berriaren alde agertu ziren.
- Gipuzkeraz: XIX. mendean hiru formak erabili ziren. XX. mendeko lekukotasun guztiak forma berriari dagozkio.
- Lapurteraz: XVIII. mendeko lekukotasun bakarra forma hibridoarena da. XIX eta XX. mendeetan forma hibridoak eta berria agertzen dira.

## IV.2. Aditzondo konposatuetan

IV.2.1. *nondikbait / nondikbaitetik / nonbaitetik*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>non-dik-bait</i> nondikbait (1) nondik-bait (2) nondibait (3)			<i>gn:</i> Lizarraga (1)	<i>g:</i> Íztueta (1)	<i>b:</i> Azkue (1) <i>g:</i> Lizardi (2) (3)
<i>non-dik-bait-e-tik</i> nundibaitetik (1) nundikpaitik (2) nundipaitik (3) nuntipaitik (4) nuntipaiti (5)			<i>z:</i> Mardo (4)	<i>b:</i> Arrese Beitia (1) <i>l:</i> Duvoisin <sup>8</sup> (2)	<i>l:</i> Lhande (3) <i>z:</i> Larrasket <sup>9</sup> (5)
<i>non-bait-etik</i> nonbaitetik (1) nonbaitetikan (2) nonbaitik (3) nonbaiterik (4) nonbeitik (5) nunbaitetik (6) nunbaitik (7) nunbeitik (8)		<i>l:</i> Etcheberri Ziburukoa (3)	<i>g:</i> Larramendi (4) <i>l:</i> Larregi (4)	<i>bn:</i> Etxamendi (7) <i>g:</i> Lardizabal Soroa (1) Urruzuno (2) (7) R. Artola (1) Arzak (3) (7) J. Artola (2) <i>gn:</i> Bordel (7) <i>l:</i> Goietxe (3) Hiribarren (3) Duvoisin (3) Elizanburu (3) Mendiage (3) Laphitz (3) Joanategi (5) Alberbide (3) <i>z:</i> Arxu (3) Otxalde (7)	<i>b:</i> D. Agirre (6) Zamarripa (1) R. Bustintza (1) Erkiaga (6) Kamiñazpi (6) <i>bn:</i> Barbier (6) (7) Oxobi (9) Etxepare L.(7) <i>g:</i> D. Agirre (6) Garitaonaindia (1) Altzaga (1) Txirrita (6) Anabitarte (1) Barrenso (6) Irazusta (6) <i>gn:</i> Larreko (3) Gurbindo (6) Iraizoz (1) Izeta (1) <i>l:</i> Hiriart Urruti (6) Zerbitzari (8) Lhande (3) (7) Etxepare (7) Lafitte (3) (7) Larzabal (6) (7) (8) Iratzeder (7) (8) <i>z:</i> Mirande (3)

— Bizkaieraz: XIX. mendean Arrese Beitiak forma hibridoa erabili zuen,<sup>10</sup> XX. mendean forma zaharra eta berria agertzen dira.

<sup>8</sup> OEH-n: *nundikpaitik* Duvoisinin hiztegitik hartua.

<sup>9</sup> OEH-n: *nuntipaiti* Larrasketen hiztegitik hartua.

<sup>10</sup> Ematen du Arrese Beitiak forma pleonastikoa erabili zuela bertso neurriari behartua:

Nun miñ bat leun ta zolia? Ai baletorkit *nundibaitetik* Musaren baten argia!  
(*Ama euskeriaren liburu kantaria*: Milla Betiko Loraz Egiñiko Aroa Kalderon Ezillkorrari)

- Gipuzkeraz: XVIII. mendean Larramendik forma berria baliatu zuen; berriz, XIX. eta XX. mendeetan forma zahar eta berriaren lekukotasun zenbait agertzen dira.
- Lapurteraz: XVII. mendetik aurrerantzean idazle guztiak agertzen dira egitura berriaren alde, salbuespen bakarra Lhande da, forma berriaz gain hibridoa erabili baitzuen. Azpimarratzekoa da Duvoisinin hiztegian forma hibridoa aipatzen bada ere, berak forma berria erabili zuela.
- Zubereraz: XVIII. mendean Mardok forma hibridoa (aldi batez) erabili zuen. Berriz, XIX. eta XX. mendeetako lekukotasun guztiak forma berriari dagozkie.

IV.2.2. *norabait / norabaitera / nonbaitera*

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>no-ra-bait</i> norabait (1) norabait (2) norapait (3) noratbeit (4) norapeit (5) nurapait (6)		<i>l:</i> Etcheberri Zi- burukoa (1) <i>z:</i> Oihenart (1)	<i>l:</i> Haraneder (4) <i>gn:</i> Lizarraga (3)	<i>b:</i> Zabala (1) Astarloa (1) <i>g:</i> J. B. Agirre (1) Lardizabal (1) Uriarte (1) Iraola (1) Artola (1) Uranga (1) S. Irure <i>l:</i> Goietxe (3) Hiribarren (3) Duvoisin (1) (2) (3) Zaldubi (5) Elizanburu (3) Laphitz (3) Joanategi (5) Webster (5) Arbelbide (2) (3)	<i>b:</i> D. Agirre (1) Azkue (1) Etxeita (1) Erkiaga (1) Kamiñazpi (1) <i>bn:</i> Etxepare (3) Barbier (3) (5) <i>g:</i> Barriola (1) Barrenso (1) Labaien (1) Lizardi (1) Orixe (1) Anabitarte (1) S. Mitxelena (1) Salaberria (1) <i>gn:</i> Etxamendi (5) Larreko (3) <i>l:</i> Hiriart Urruty (5) Zerbitzari (5) Etxepare (3) (5) Lafitte (3) (5) Larzabal (1) (3) (5) <i>z:</i> Constantin (6) Mirande (1)
<i>no-ra-bait-e-ra</i> norabaitera (1) norabaita (2)				<i>g:</i> Otaño (1)	<i>b:</i> D. Agirre (1) E. Bustintza (1) Erkiaga (1) Kamiñazpi (1) <i>g:</i> D. Agirre (1) S. Mitxelena (2)
nonbaitera (1) nonbaitara (2) nunbaitera (3) nunbaitara (4)				<i>b:</i> Arrese Beitia (1) <i>g:</i> S. Irure (1)	<i>b:</i> Etxeita (2) (4) Erkiaga (1) (3) Kamiñazpi (3) <i>g:</i> Barrenso (3) Villasante (3)

- Bizkaieraz: XIX. mendean forma zaharra eta berria erabili ziren; ostera, XX. mendean hiru formak erabili ziren.
- Gipuzkeraz: XIX. eta XX. mendeetan hiru formak erabili ziren. Azpimarratzeokak dira Otañok eta S. Mitxelenak egin zituzten hibridoen erabile-rak.<sup>11</sup>
- Lapurteraz: XVII. mendetik aurrerantzean, mendez mende, egitura zaharrari atxiki zitzaizkion idazle guztiak.

IV.2.3. *nonbait / nonbaiten*<sup>12</sup>

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>no-n-bait</i> nonbait (1) nonbeit (2) nunbait (3) nunbeit (4) nunbaist (5)	<i>bn:</i> Etxepare (1) <i>l:</i> Leizarraga (2)	<i>l:</i> Pouvreau (1) <i>z:</i> Oihenart (1)	<i>g:</i> Larramendi (1) <i>gn:</i> Mendiburu (1) <i>l:</i> Haraneder <i>z:</i> Egiategi (1)	<i>b:</i> E. Azkue (5) Arrese Beitia* (1) <i>g:</i> Agirre (1) Bilintx (1) Iraola (1) <i>l:</i> Duvoisin (1) Elizanburu (1) (2) Laphitz (1) Arbelbide (1) <i>z:</i> Etxahun (1)	<i>b:</i> Etxeita (3) <i>bn:</i> Barbier (2) <i>g:</i> Altzaga (1) Orixe (1) Loidi (3) Altuna (3) <i>l:</i> Zerbitzari (4) Etxepare (3) <i>z:</i> Constantin (3)
<i>no-n-bait-en</i> nonbaiten (1) nonbaitean (2) nonbaitian (3) nunbaiten (4) nunbaitean (5) nunbaistan (6)				<i>b:</i> Zabala (2) * E. Azkue (6)* Arrese Beitia (1)* (2)* <i>g:</i> S. Irure (3)*	<i>b:</i> D. Agirre (1) (4) Kirikiño (4) Zamarripa (1)* Erkiaga (4) <i>g:</i> D. Agirre (1) (4) (5) Iruretagoiena (4) (5) Anabitarte (2) Eizagirre (4)

<sup>11</sup> Badirudi Otañok metrikak behartua baliatu zuela forma hibridoa:

Ta leku txiki edertu hura / eziñ zeikian aunditu / *norabaitera* joan beharrea / asko ziraden aurkitu (*Zerbait*, Ama euskara)

S. Mitxelenak forma zaharra (bi aldiz) eta pleonastikoa (aldi batez) erabili bazituen ere, ematen du azken hori aliterazio bat markatzeagatik edo, baliatu zuela:

/galduta illunpetan / *norabaita* irteteko / antzi-ametsetan

(*Arantzazu*, Jentil-Aroa)

<sup>12</sup> *nonbait/ nonbaiten* formen lekukotasunetako gehiengoa — «En algun lugar» leku aditzondo adierarekin— *OEH*-tik atereak dira, (\*) marka dutenak Corpus Arakatzaitetik atera ditugu.

Dudarik gabe mendebaleko idazle askorentzat *nonbait* eta haren aldaerak garden-tasun gabe geratu ziren, hortik, forma pleonastikoaren erabilera. Euskalkien arabera ondoko datuak biltzen dira:

- Bizkaieraz eta gipuzkeraz: XIX. mendean hasi zen forma pleonastikoa agertzen, Arrese Beitiak, E. Azkuek, eta S. Irurek metrikagatik erabili bide zuten,<sup>13</sup> eta XX. mendean bi formak erabili ziren.
- Lapurteraz: XVI. mendetik aurrera forma zaharrari eutsi zioten, mendez mende.

#### IV.2.4. *nondik nahi / nondiknahitik / non nahitik*<sup>14</sup>

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>non-dik-nahi</i>		<i>l:</i>	<i>gn:</i>	<i>b:</i>	<i>b:</i>
nondik nahi (1)		Pouvreau (1)	Mendiburu (5)	Añibarro (3)	Azkue (3)
nondik-nahi (2)		Aranbillaga (1)	Lizarraga (4)	Astarloa (10)	<i>bn:</i>
nondiknai (3)			<i>l:</i>	<i>g:</i>	Barbier (1) (2)
nondik nai (4)			Xurio (1)	Agirre (3)	Oxobi (8)
nondik-nai (5)			Haraneder (1)	Izueta (4)	<i>g:</i>
nondinai (6)				Gerriko(10)	Imaz (10)
nundik- nahi (7)				Lardizabal (5)	Lizardi (4)
nundik-nahi (8)				Soroa (10)	Orixe (6) (12)
nundikan nahi (9)				Arrue (5)	Anabitarte (3) (5)
nundik-nai (10)				Xenpelar (5) (6)	<i>l:</i>
nundikan-nahi (11)				Txirrita (10)	Exepare (7)
nundikan-nai (12)				<i>l:</i>	Leon (2)
				Duhalde (1)	
				Hiribarren (1)	
				Duvoisin (2) (11)	
				Harriet (11)	
				Elizanburu (1)	
				Arbelbide (2)	

<sup>13</sup> Arrese Beitiak *nonbait* (6 aldiz) erabili zuen, eta aldi batez bana *nonbaiten* eta *nonbaitean*:

Asi gaitezen bada irakurten emen / Amaituko dot gero azkena *nonbaiten*  
(*Ama euskeriaren liburu kantaria*: Martin-Illargi Eta Marta-Mimimi)

Íñoren ardurea pago adarrean / Dagoala esan zan nozbait *nonbaitean*

(Ib.: Anton Zoli)

Badirudi E. Azkuek *nunbaistan* metrikak behartua erabili zuela. Izan ere, idazlan bereborean 2 aldiz baliatu zuen *nunbaist*:

Baina Castron *nunbaistan* dagoz gizon putzak min zirrizdunak

(*Parnasorako bidea*: Castroko Arrantzariak)

S. Irurek 6 aldiz erabili zuen *nonbait* forma zaharra, eta hibridoak edota errimak behartua baliatu zuen:

Pasaitik Errenteri biyen bitartean, baserritxo bat on da bada *nonbaitian*

(*Bizi bedi euskera*)

<sup>14</sup> (\*) marka dutenak Corpus Arakatzaitetik hartuak dira; gainerako guztiak *OEH*-tik hartu ditugu.

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>non-dik- nabi-tik</i> nondik nahitik (1) nondik- nahitik (2) nundik- nahitik (3)				<i>l:</i> Duvoisin (1) (2) Harriet (2) Prop. 1893 (2)	<i>bn:</i> Barbier * (2) <i>l:</i> Larzabal * (3)
<i>non-nabi-tik</i> non-nahitik (1) nonahitik (2) non-naitik (3) nun-nahitik (4) nunahitik (5) nunnahtik (6) nun naitik (7) nunaitik (8)				<i>g:</i> Soroa (1) Azkarate (8) <i>l:</i> Duvoisin (1) Harriet (1)	<i>b:</i> Lauaxeta *(7) Ibiñagabeitia (4) <i>bn:</i> Manezaundi (4) <i>g:</i> D. Agirre (8) P. Errota (8) Lizardi (3) Etxaniz (7) Zubimendi * (8) Uztapide (5) Baserri (6) (8) Azurmendi (5) Lekuona (7) Eizagirre (6) Etxaide (7) S. Mitxelena (8) Gandiaga (4) (8) <i>l:</i> Larzabal * (1)

- Bizkaieraz: XIX. mendean forma zaharrekoak dira lekukotasun guztiak. Berriz, XX. mendeko idazleek forma zaharra eta berria erabili zituzten.
- Gipuzkeraz: XIX. eta XX. mendeetan forma zaharra eta berria erabili ziren.
- Lapurteraz: XVII. eta XVIII. mendeetan forma zaharra erabili zen; berriz, XIX. mendean hiru formak agertu ziren, eta XX. mendeko idazleak forma zaharraren eta berriaren artean banatuta agertu ziren.

#### IV.2.5. *noranahi / noranahira / nonahira*<sup>15</sup>

- Bizkaieraz: XIX. eta XX. mendeetako idazle bizkaitar guztiak forma zaharra erabili zuten.
- Gipuzkeraz: XIX. eta XX. mendeetako idazleen gehiengoa forma zaharrari atxiki zitzaion, Otañok eta Barrensorok forma zaharraz gain hibridoa erabili zuten, eta Basarriren lekukotasun bakarra hibridoa da.<sup>16</sup>

<sup>15</sup> (\*): *OEH*-tik hartuak; Duvoisinen lekukotasuna bere hiztegiari dagokio.

<sup>16</sup> Otañok *noranaira* metrikagatik erabili zuen:

Baña etzera galduko / *Noranaira* joanik / Ez bazaizu aztutzen / Gaur emen esanik  
(*Alkar*, Aita-Semeak)

Baserrik Otañok erabilitako lokuzio bera jarri zuen bertsoan:

Ate guziak zabal zabalik biok *noranaira* joanik  
(*Kantari nator*, 34)

— Lapurteraz: XVI. mendetik aurrerantzean idazle guztiek forma zaharra baliatu zuten. Larzabal zaharraz gain berriaz ere baliatu zen, bera delarik euskal literatura osoan forma berria erabili zuen bakarra.

	XVI	XVII	XVIII	XIX	XX
<i>no-ra nahi</i> noranahi (1) nora nahi (2) nora-nahi (3) nora-nahi den (4) noranai (5) nora nai (6) nora-nai (7) noratnahi (8) norat nahi (9) norat-nahi (10) norat nahi den (11) norat-nahi den (12) nurat nahi beita (13)	<i>l:</i> Leizarraga (7)	<i>gn:</i> Beriaín (6) <i>l:</i> Axular (11) Harizmendi (2) Haranburu (2) Pouvreau (2) <i>z:</i> Tartas (9)	<i>g:</i> Kardaberaz (5) Ubillos (6) <i>gn:</i> Mendiburu (5) (6) Lizarraga (5) (6) <i>l:</i> Etxeberri Sarakoa (4) Xurío (8) (9) Haraneder (1) Larregi (9) Baraziart (12) <i>z:</i> Maister (13) Egiategi (9)	<i>b:</i> J. A. Mogel (6) Añibarro (5) (6) B. Mogel (6) Astarloa (6) Uriarte (5) Arrese Beitia (6) <i>g:</i> Agirre (5) (6) (7) Iztueta (5) (6) Lardizabal (5) (6) (7) Iturriaga (5) Uriarte (5) R. Artola (5) Arrue (5) Beobide (5) Otaño (5) S. Irure (5) <i>l:</i> Goietxe (2) Duvoisin (3) (10) Zaldubi (2) Elizanburu (9) Mendiage (11) Laphitz (9) Daskonagerre (9) Joanategi (10) Lapeire (9) <i>z:</i> Intxauspe (8)	<i>b:</i> Azkue (5) D. Agirre (5) R. Buztintza (5) <i>bn:</i> Barbier (9) Manezaundi (1) <i>g:</i> Antia (6) Barriola (1) Altzaga (5) Arruti (5) Mujika (5) (6) Lizardi (5) (7) Orixe (5) Barrensoero (5) Mitxelena S. (5) <i>gn:</i> Gurbindo (6) <i>l:</i> Hiriart Urruti (9) Decrept (9) (10) Leon (10) Larzabal (9) (10)
<i>no-ra nahi-ra</i> noranahira (1) noranaira (2)				<i>g:</i> Otaño (2) <i>l:</i> Duvoisin* (1)	<i>g:</i> Barrensoero (2) Basarri *(2)
<i>non-nahi-ra</i> nunnahirat					<i>l:</i> Larzabal

### IV.3. Balizko bilakabideak

#### IV.3.1. *harentxe / harentxen / haretxen:*

	XIX	XX
<i>har-en-txe</i> arentxe	<i>g:</i> Agirre	
<i>har-en-txe-en</i> arentxen (1) arrentxen (2)	<i>g:</i> Beobide (1) S. Irure (2)	<i>g:</i> Salaberria (1)



	XIX	XX
<i>har-e-txe-en</i> aretxen (1) arexen (2) arretxen (3)	<i>b:</i> Uriarte (1) Arrese Beitia (2) Zutagape (2) <i>g:</i> S. Irure (1) (3)	<i>b:</i> Azkue (1) Etxeita (2) Kirikiño (2) R. Bustintza (2) Kamiñazpi (1) <i>g:</i> Labaien (1) Lizardi (2) Barrenso (1) S. Mitxelena (1)

Azkuek (1923-25: I, 223-24) adierazi zuen hizkera batzuetan *-xe /-txe* atzizki indartzaileak daramatzaten hitzek *-k*, *-t*, eta *-n* enklitikoak hartzen ohi zituztela.<sup>17</sup> Horren arabera, *arentxen arentxe*-ren enklitikodun aldaera izango litzateke. Hala ere, Larramendik (1729: 27) erakusle indartuen deklinabidean “*onentxená, orrentxená: de este mismo, de ese mismo*” genitiboaren formak aipatu zituen. Horren arabera, ematen du Larramendiren bukaerako *-n* ez zela enklitiko bat, baizik eta, genitiboaren marka: *onentxená < onentxe-en-a*. Hori horrela izanez gero, orobat gertatuko litzateke *onentxen / onetxen* eta *arentxen / aretxen* balizko bilakabideekin.

## V. Ondorioak

### V.1. Hibridoak euskal literaturaren diakronian

Esan daiteke hibridoen erabilera urria izan dela beste bi formenarekin alderatuz. Baliteke horren arrazoia euskal idazleentzat forma hibridoa bigarren mailako estilo baliabidea izatea. Izan ere, eta ikusi dugunez, poeta eta bertsolari zenbaitek hala nola S. Mitxelenak, Otañok, E. Azkuek, Arrese Beitiak, etab., soilik, metrikak edota erri-mak behartu zituztenean aintzakotzat hartu zituzten forma hibridoak. Hitz lauz ere Laffitek adierazi zuenez (ik. § II.1) forma hibridoak ez bide ziren dotoreenak euskal idazleen artean. Hala ere, badira salbuespenak idazlanak irakurleago edota entzuleria herrikoi bati zuzentzen zirenean. Izan ere, Lizarragak maiz erabili zituen *noribaiti*, eta *norinaii* bere *Sermoietan*; Duvoisinek ere bat baino gehiagotan baliatu zituen *nork berak* eta *nori berari Laborantzako liburuan*; ziurrenik, horrela islatzen zutelako ahozkoan arrunta bide zen pleonasmo horien erabilera.

Horrezaz gain, esanguratsua da agertutako pleonasmoak —erakusle indartuen genitiboaren balizkoak izan ezik— *X-bait*, *X-nahi* eta *X-bera* sailei dagozkiela. Ikusi dugunez, Haspelmathen arabera, pleonasmo afixazioa sortzen da inflexioa erroaren aldamenean duen hitzaren gardentasun morfosemantikoa aski ez delako, eta ematen du hiru atzizkiak gardenak ez izateak<sup>18</sup> eragingo lukeela haien bidez eraturtako eratorrien gardentasun morfosemantiko urria, eta, hortik, pleonasmo afixazioa.

<sup>17</sup> Esate baterako, (B-bar-mu) *araxek, oraintxek; bantxet, hortxet, hulaxet* (Bn, L, S); *ementxen* Azpeitian, edo *ointxen* (B-g) eta Lekeition.

<sup>18</sup> Izan ere, *bait*-ek aurrizki batean (Trask 1997: 197-198), edo perpaus erlatibo libreetan (Etxepare 2001: 93) izan dezake jatorri; *nahi*-k erromantzeetan bezala *nahi izan* aditzean du jatorri, eta *bera* ize-nordain bat da.

Deklinabideari dagokionez, pleonasma afixazioa ergatibo, datibo, genitibo, inesibo, adlatibo eta ablatiboan agertzen da.

## V.2. IK-a eta euskalkiak

Orain arte ikusitakoaren arabera, euskal literaturan IK bilakabide diakronikoe-tako hiru mailen lekukotasun askotxo agertzen dira. Nolanahi ere, ezin da esan IK bilakabide lineal hutsak agertu direnik; aitzitik, euskalkiei dagokienez, halako ana-basa aurkitzen da hiru aldetan:

- a) Oro har, euskalkiz euskalki hiru formen erabilera ezberdinak eman dira. Esate baterako, lapurteraz xvi. mendetik aurrerantzean idazle guztiek *norbaiti* erabili dute. Berriz, xviii. mendean goi nafarreraz idatzi zuen Lizarragak ia sistematikoki *noribaiti* erabili zuen. Azkenik, xx. mendean bizkaieraz forma kanporatua bakarra izan bazen ere, gipuzkeraz oraindik *noribait* eta *norbaiti* erabili ziren (ik. § IV.1.1.1.).
- b) Euskalki berberaz idatzi zuten idazle garaikideen artean jarrera desberdinak agertzen dira. Adibidez, xix. mendean J. A. Mogelek *nor nai* erabili zuen bitartean Añibarrok *nor naik*-en alde jo zuen (ik. § IV.1.1.2.); Laphitzek *noren nahiren*, baina Arbelbidek eta Hiribarrenek *nor nahiren* (ik. § IV.1.1.4.), etab.
- c) Askotan, idazle berak forma ezberdinak erabili zituen. Esate baterako, Zabalak *noribait*, *norbaiteri* eta *norbaisteri* (ik. § IV.1.1.1.); Duvoisinek *nora-nahi*, *norat-nahi* eta *noranahira* (ik. § IV.1.2.2.2.), etab.

Horren guztiaren ondorioz, ezin dira lege orokorrak ondorioztatu, eta, soilik, muturreko joera bi nabarmen daitezke:

- a) Diakronian inflexio kanporatuari atxiki zaizkien euskalkiak:  
Lapurteraz xvi. mendetik aurrerantzean idazle guztiek *norbaiteri* forma erabili zuten (ik. § IV.1.1.1.). Horrek iradokiko luke dagoeneko xvi. mendean IK-a gauzatua zela.
- b) Diakronian barneko inflexioei atxiki zaizkien euskalkiak:  
*nonbait* zubereraz (ik. § IV.1.1.2.)  
*norabait*, *nonbait* lapurteraz (ik. § IV.1.2.2. eta § IV.1.2.3.)

Laburbilduz, esan daiteke euskara idatzian Haspelmathen IK bilakabide diakronikoaren hiru mailetakoko lekukotasun asko agertzen dela. Hala eta guztiz ere, euskalkiz euskalki joera desberdinak agertzen dira, eta areago, euskalki baten barneko joerak ez dira bateratuak; aitzitik, badirudi, oro har, forma barneratu, hibrido eta kanporatuaren erabilera idazle bakoitzaren tokian tokiko hizkeraren edota bere senaren mende egon dela.

## VI. Bibliografia

- Arotçarena, A., 1951, *Grammaire basque (Dialectes Navarro-Labourdin)*, Bayonne, Jakin Librairie. Berrarg. 1976.
- Azkue, R. M., 1923-25, *Morfología vasca*, Bilbo, Euskaltzaindia. Berrarg. faksim. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1969.

- Bybee, J. L., 1985, *Morphology, a study of the relation between meaning and form*, «Typological Studies in Language» vol. 9, Amsterdam / Philadelphia, J. Benjamins.
- Etxepare, R., 2001, «Nz-bait izenordain zehaztugabeen jatorriaz», *Lapurdum* VI, 93-117.
- Camino, I., 2003, *Hego-nafarrera*, Iruña, Nafarroako Gobernua.
- Gavel, H., 1929, *Grammaire basque*, tome I, Baiona, Imp. du Courrier.
- Greenberg, J., 1963, «Some universals of grammar with particular reference to the order of meaningful elements». In Greenberg (arg.), *Universals of language*. Cambridge, Massachusetts, MIT Press, 73-113.
- Haspelmath, M., 1993 «The diachronic externalization of inflection», *Linguistics* 31, 279-309.
- Lafitte, P., 1944, *Grammaire basque*, Baiona. Bigarren arg. «revue et corrigée», Baiona, Ikas, 1962. Bigarren arg. faksim., Donostia, Elkar, 1978.
- Lakarra, J. A., 1996, *Refranes y sentencias (1596)*. *Ikerketa eta edizioa*, Bilbo, Bizkaiko Foru Aldundia & Euskaltzaindia.
- Larramendi, M., 1729, *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*, A. J. Villagordo, Salamanca. Berrag. faksim. Donostia, Hordago, 1979.
- Mitxelena, K., 1987, *Orotariko euskal hiztegia-Diccionario general vasco*, Bilbo, Euskaltzaindia.
- Trask, R. L., 1997, *The history of Basque*, London, Routledge.